

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gautegiz-Arteagako Udala**

Gautegiz-Arteagako Zelaieta kalean biribilguneak eraikitze eta espaloiak zabaltzeko proiektua egiteko 5. lurtatia dela eta sinatuko den hirigintza-hitzarmenaren proposamena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriko 8. puntuan xedatutakoarekin bat etorritik, iragarki honen bitartez jendaurrean jarriko da honako hauen artean sinatuko den hirigintza-hitzarmena: Juan Felix Naberan Ozamiz jauna, Gautegiz-Arteagako Udalaren ordezkari, eta 5. lurtatik lurzoruaren jabeak. Hitzarmena sinatuko da Gautegiz-Arteagako Zelaieta kalean biribilguneak eraikitze eta espaloiak zabaltzeko proiektua egiteko, eta, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, hogeitun eguneko epea egongo da 2019-00318 zenbakidun espedienteaz aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiteko.

Horretarako, aipatutako hitzarmenaren testu osoa jasoko da jarraian; dena den, datu pertsonalak babesteari begira babes gehien behar duten datu guztiak isilean gordeko dira.

Gautegiz-Arteagan, 2019ko abuztuaren 21ean.—Alkatea, Juan Félix Naberan Ozamiz



Gauegiz-Arteagan, 2020ko uztailaren 3an.

- Alde batetik, G.R. I. andrea, adin nagusikoa, 305**** 7R NANA duena, Echeaspico Sola CB jabekideen erkidegoaren (IFK: E48761381) ordezkari gisa; jakinarazpenetarako helbidea: Zelaieta kalea 17C, Gauegiz-Arteagako esk.

Eta

- Bestetik, Juan Felix Naberan Ozamiz jauna; jakinarazpenetarako helbidea: Herriko Enparantza kalea 1, Gauegiz-Arteaga-48382.

JARDUTEN DUTE:

Lehenengoak bere izenean eta eskubideetan, aurrerantzean «jabeak».

Bigarrenak, Gauegiz-Arteagako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, 2019ko ekainaren 15eko osoko bilkuraren arabera ekitaldi honetarako alkate izateko ahalmena du.

Bi aldeek hitzarmen hau sinatzeko behar besteko gaitasuna aitortzen diote elkarri, honako klausula hauen arabera:

Aurrekariak

I. Jabeak etxebizitza baten eta 943,22 m² inguruko lur-zati baten titularrak direla, N9634278L zenbaki finkoa duen hiri-katastroko ziurtagiriaren arabera. Finka hori Echeaspico Sola CB jabekideen erkidegoaren alde inskribatuta dago Gernika-Lumoko Jabetza Erregistroan, datu hauen arabera: Gauegiz-Arteagako 1.174 finka, 950. liburu-kia, 16. liburua, 199. folioa. I. eranskin gisa erantsi dira ziurtagiriak eta, hala badagokio, ohar sinpleak.

II. Finka horiek indarrean dauden udal-plangintzako Arau Subsidiarioetan aurreikusitako babes ofizialeko hiri-lurzoruaren barruan daude. Bizkaiko Foru Aldundiaren errepideei buruzko indarreko legeriak eta Gauegiz-Arteagan indarrean dauden arau subsidiarioek finkari eragiten dioten biribilgune bat eta espaloiak handitzeko aurreikuspena jasotzen dute.

III. I. aurrekarian deskribatutako finka osotik, gutxi gorabehera 104,93 m² aldi baterako okupatuko dira eta 285,42 m² behin betiko okupatuko dira Poterietako biribilgunea, hilerriko bideetara eta Errekalde eta Orue auzoetara sartzeko eta espaloiak handitzeko lanek eraginda. II. eranskin gisa, hitzarmen honen xede den finkaren plano deskribatzaileak erantsi dira, «Aipatutako biribilguneak eta espaloien handitzeak hartzen duten lur-zatia» oinarri hartuta.

Lurzatia	Jabea	Katastroko finka	Hiri. kalif.	Okupazioa		Hiri. ones. (m ² c)
				Aldi baterakoa (m ²)	Behin betikoa (m ²)	
05	C.P. Echeaspicoa Sola	041.002.09.004	BOE	104,93	285,42	85,75
TOTAL				104,93	285,42	85,75

IV. Hirigintza-jarduera hobeto eta eraginkorrago garatzeko lankidetzarako esparrua ezartze aldera, hitzarmen hau idatzi da, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian jasotako baldintzen arabera, honako klausula hauen arabera:

Hizpaketak

Lehena: Jabeek baimena ematen diote Gauegiz-Arteagako Udalari bere titulartasuneko lursailaren zati bat, 104,93 m² inguru aldi baterako okupatzen dituen eta 285,42 m² inguru behin betiko okupatzen dituen, doan okupatu eta erabiltzeko. Zati hori III. aurrekarian aipatzen da.

Aurrerago esango diren gogoetak alde batera utzi gabe, behin betiko okupazioa osatzen duten lurak denbora-mugarik gabe lagako dira, Poterietako biribilgunea, hilerri-



ko bideetarako eta Errekalde eta Orue auzoetarako sarbidea eta aipatutako lursailetan egingo den espaloien zabalkuntza jasateko.

Aldi baterako okupazioaren helburua da egin beharreko obrak lortzea, eta, horregatik, jabeak konpromisoa hartzen du obra horiek kostu gehigarriak ordaindu gabe jasateko, eta Gautegiz-Arteagako Udalak konpromisoa hartzen du okupazioaren xede diren obrak amaitu ondoren lurra baldintza egokietan itzultzeko.

Zehazki, udal honek konpromisoa hartzen du jabeen erkidegoaren erabilera publiko-ko gaur egungo lau parterrak udal sega-sistemaren barruan sartzeko datozen 15 urteetan, hau da, 2.035 urtera arte.

Bigarrena: Gautegiz-Arteagako Udalak onartzen du jabeak lagatako lursail guztiei 85,75 m²c-ko eraikigarritasuna dagokiela, biribilguneak eta espaloiek okupatutako 285,42 m²-ko behin betiko okupazioari dagozkion hirigintza-eskubideei dagokienez, hartatik eragotzi gabe etorkizunean egokitu dakiokkeen eraikigarritasuna.

Aldi baterako eta behin betiko okupazioaren azalera eta dagokion hirigintza-eraikigarritasuna ondoko koadroan adierazten dira, egungo hirigintza-aprobetxamendua kontsumituta dagoela kontuan hartuta, etorkizunean legokiokeen eraikigarritasunari kalterik egin gabe:

Lurzatia	Jabea	Katastroko finka	Hiri. kalif.	Okupazioa		Hiri. ones. (m ² c)
				Aldi baterakoa (m ²)	Behin betikoa (m ²)	
05	C.P. Echeaspicoa Sola	041.002.09.004	BOE	104,93	285,42	85,75
TOTAL				104,93	285,42	85,75

Hirugarrena: Gainera, Gautegiz-Arteagako Udalak udalaren hirigintza-antolamenduaren barruan egindako espaloien biribilgunea eta handitzeak jasotzeko konpromisoa hartzen du, horretarako egokien deritzon prozedurari jarraituz, aldaketa puntual baten bidez edo, hala badagokio, plangintza orokorra egokitu edo berrikusteko unean, hirigintza-legeriarekin bat datorren beste edozein hirigintza-bitartekoren bidez.


Laugarrena: Jabeek akta honetan jasotzen diren gutxi gorabehera okupatutako 285,42 m²-ko hirigintza-aprobetxamenduak gauzatzen badituzte, horien titulartasuna doan eta inolako karga, karga edo zortasunik gabe transmitituko dio Gautegiz-Arteagako Udalari.

Gautegiz-Arteagako Udalaren kontura izango dira aipatutako lur-azaleraren titulartasunaren eskualdaketa eskritura publiko eta erregistro-inkripzio bihurtzearen ondorioz sor daitezkeen gastu eta zergak.


Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, hirigintza-hitzarmen hau sinatzen du, bi aletan eta ondorio bakarerrako, ut supra lekuan eta egunean.

Honekin batera doa:

- 1. eranskina: Erregistroko eta katastroko datuak.
- 2. eranskina: Planoa.



Escala: 1:400



05 - 002 09 004	
Punto	Coordenadas
	528111.21, 4799301.57
59	528107.10, 4799311.65
	528108.56, 4799314.47
61	528112.46, 4799322.04
63	528119.53, 4799335.25
65	528124.73, 4799343.75
	528125.70, 4799343.52
	528120.00, 4799319.46
	528116.01, 4799302.77
	528114.94, 4799301.24
	528113.73, 4799300.25
	528112.84, 4799300.07
	528112.19, 4799300.32
	528111.64, 4799300.77
Área de ocupación definitiva: 285.42m ²	
Área de ocupación temporal: 104.93m ²	



Gauteziz
Arteagako Udala
Ayuntamiento de
Gauteziz Arteaga

Construcción de rotondas y ensanchamiento de
aceras. Expediente de ocupación
Oct. 2018